


BALOREZKO PROPOSAMENAK

Gure produktua martxan jartzerako orduan, gure alde dugun gauzetako bat zera da: gaur eguneko autoek ez dutela segurtasun handirik eskaintzen eta lapurreta asko ematen direla. Gure enpresak, Kaukasok, aurrez existitzen ez zen produktu bat atera du merkatura; merkatuan dagoen produkturik seguruena, kotxeak lapurketatik saihesteko pertsianak. Erosoagoa izateko, gure produktua erosten duen bezero bakoitzak mando bat izango dut pertsiana jaitsi eta igotzeko. Gainera, gure bezeroek pertsiana pertsonalatuak edukiko dituzte beraien autoetan, kolorea erabakitzeko aukera izango dute. Gure marka edota zerbitzua ez da izango ezaguna produktua prezio baxuetan saltzen dugulako bereziki, baizik eta, segurtasun handiko kotxeei eskaintzen diegulako.

Gure produktua, kristaletan ezarrita egongo den pertsiana normal bat izango da. Kotxean bertan zaudenean pertsiana beheraka egotea izango litzateke hoberena, lapurketak izateko aukerak gutxiago direlako; eta kotxean ez zaudenean pertsiana goraka egotea da hoberena lapurketak saihesteko.

Enpresa berria denez, hasierako inpresioa garrantzitsua dela uste dugu eta horregatik, gure pertsianak erakargarritasuna eta segurtasuna transmititzea nahi dugu.

Auto lapurketak Spainian



e

Grafiko honetan ikus dezakegun bezala, 2007tik 2016ra lapurketa kasuak asko jaitsi dira. 2007ko lapurketa kasuak gehiegizkoak direla uste dugu. 2016ean 55.000 auto

lapurketa gutxiago egon ziren. Nahiz eta jaitsiera nabaria izan, uste dugu oraindik lapurketa gehiegi daudela. Gure helburua zifra hauek gutxitzea da eta horretarako ideia hau aurrera eramatea erabaki dugu.

Hasieran Volvo markako auto seguruenari bakarrik jarriko diogu persianak, gaur egun merkatuan dagoen kotxerik seguruen delako eta horrela eksklusibotasuna izatea ere lortuko dugu. Hala ere, arrakasta lortuz gero, beste kotxe batzuei jartzeko proposamena egingo genuke.

Barietateari dagokionez, erosleek persianak bakoitzak nahi duen kolorea aukeratu beharko dute.